



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko ekainaren 25a

90. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—9.000 biztanletik gorako udaletan 2016an eta 2017an egindako administrazio-kontratazioari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

9.000 biztanletik gorako udaletan 2016an eta 2017an egindako administrazio-kontratazioari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak 9.000 biztanletik gorako udaletan 2016an eta 2017an egindako administrazio-kontratazioari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

9.000 biztanletik gorako udaletan 2016an eta 2017an egindako administrazio-kontratazioari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
 - II. Helburuak eta norainokoa (4. or.).
 - III. Ondorioak eta gomendioak (5. or.).
 - III.1. 9.000 biztanletik gorako udaletan egindako administrazio-kontratazioaren azterketa (2016 -2017) (5. or.).
 - III.2. Kontratu-lagin baten azterketa (8. or.).
 - III.3. Indarraldia amaituta duten kontratuen azterketa (9. or.).
 - III.4. Gomendioak (10. or.).
 1. eranskina Udal bakoitzak adjudikatutako kontratuen eta hautatutako kontratuen laginaren xehetasun orokorrak (12. or.).
 2. eranskina Udal bakoitzetik aztertutako lagineko kontratuei buruzko xehetasunak (13. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (16. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (18. or.).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak 2017ko urterako bere fiskalizazio programan sartu zuen fiskalizazio-txosten bat egitea 9.000 biztanletik gorako udaletan 2016an eta 2017an egindako administrazio-kontratazioari buruz. Honako udal hauek dira: Antsoain, Barañain, Berriozar, Burlata, Egues, Lizarra, Tafalla, Aranguren Ibarra, Atarrabia eta Zizur Nagusia. Udal horien guztizko populazioa 164.304 biztanlekoa da 2017ko urtarrilaren 1ean.

Ganbera honek Iruñeko eta Tuterako udalen 2016ko urteko kontuei buruzko txostenak eman zituen, eta haietan kontratazioa fiskalizatu zen; hori dela eta, udal horiek ez dira gure lanaren norainokoa sartu. Horrek esan nahi du 9.000 biztanletik gorako udalak aipatzen ditugunean aipatutako bi toki ente horien datuak ez direla barnean sartzen. Halaber, esan beharra daukagu kontratuak lizitzatzeko edo adjudikatzeko zenbatekoak aipatzen ditugunean, kopuruak dagokien BEZa sartu gabe aipatzen direla.

Lana 2017ko abendutik 2018ko otsailera egin zuen auditoriako lau teknikaririk eta auditore bategosatutako lantalde batek, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratioboekin lankidetzan.

Txostenak hiru atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, egindako lanaren helburuak, norainokoa eta mugak jasotzen dira, eta hirugarrenean, azkenekoan, ateratako ondorio eta gomendio nagusiak azaltzen dira. Halaber, bi eranskin dauzka, azterlanaren xede diren udalek adjudikatutako kontratuei buruzko eta Ganbera honek berrikusitako kontratuen langinari buruzko informazioarekin.

Eskerrak ematen dizkiegu fiskalizatutako udaletako eta Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko Ondare Zerbitzuko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak Antsoaingo, Aranguren Ibarreko, Barañaingo, Berriozarko, Burlatako, Egues Ibarreko, Lizarrako, Tafallako, Atarrabiako eta Zizur Nagusiko udaletako alkateei eman zitzaizkien ezagutzera, alegazioak aurkez zitzaten.

Kontuen Ganberak emandako epean, Egues Ibarreko Udaleko alkateak aurkeztu ditu alegazioak. Alegazio horiek behin-behineko txostenari erantzen zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen.

II. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Honako hauek izan ziren lan honen helburuak:

- 9.000 biztanletik gorako udaletako 2016ko eta 2017ko administrazio-kontratazioa aztertzea.
- Fiskalizatzea ea udal horietan 2016ko eta 2017ko kontratu horien lagin baten adjudikazioa eta exekuzioa araudi indardunaren arabera izan diren.
- Aztertzea ea indarraldia amaituta duten baina betetzen jarraitzen diren kontratuak badauden 2017ko abenduaren 31n.

Honako hau izan da gure helburuak lortzeko erabili dugun informazioa:

- Nafarroako Gobernuako Kontratazio Publikorako Batzordearen Kontratuen Erregistroa, 2016. eta 2017. urteetako.
- 40 kontraturen lagin baten (adjudikatutako guztien ehuneko 23) kontratazio-espeditentak eta exekuzioa: 6,33 milioi euro egiten dute (adjudikatutako zenbatekoa osoaren ehuneko 57). Laginean jasotako kontratuen xehetasunak txosten honen 1. eta 2. eranskinetan kontsulta daitezke.
- Kontratazio Ataria, lagineko espeditente guztiei eta dauden erreklamazio guztiei buruzko informazioarekin.
- Kontratuak amaituta dituzten prestazioei dagozkien gastuei buruz udalek emandako datuak.
- Tokiko administrazio-kontratazioari aplikatzekoa zaion araudia.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta, funtsean, "Betetzeari buruzko fiskalizazioaren oinarritzko printzipioak" ISSAI-ES 400 araua aplikatu da.

III ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako lanaren ondorio nagusiak aurkezten ditugu atal honetan, bai eta 9.000 biztanletik gorako udaletako administrazio-kontratazioaren kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere.

III.1. 9.000 BIZTANLETIK GORAKO UDALETAN EGINDAKO ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOAREN AZTERKETA (2016 -2017)

Arestian aipatu dugun bezala, ematen ditugun datuak Kontratuen Erregistrotik hartuak dira; ondoren, Nafarroako sektore publiko osoaren administrazio-kontratazioari buruzko datu orokor batzuk ematen ditugu, egindako lana bere testuinguruan jartzeko honako hauek bereiziz: Foru Komunitateko Administrazioa, bere erakunde autonomo eta menpeko sozietateekin, eta tokiko sektorea.

NAFARROAKO SEKTORE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA (2016-2017)

2016an eta 2017an, Nafarroako sektore publikoak guztira 1.041 eta 760 kontratu adjudikatu zituen, hurrenez hurren. Hona hemen xehetasunak:

	Zenbat kontratu		Adjudikazioaren zenbatekoa	
	2016	2017	2016	2017
Administrazioaren, erakunde autonomoen eta sozietateen eremua				
Laguntza	290	263	67.895.194	76.875.560
Zerbitzu-emakidak	3	0	101.036	0
Obrak	76	89	21.012.078	38.309.509
Hornidura	186	133	20.985.834	21.290.210
Administrazioaren, erakunde autonomoen eta sozietateen eremua, guztira	555	485	109.994.142	136.475.279
Tokiko esparrua				
Laguntza	223	127	20.406.936	8.630.818
Herri-lanaren emakida	1	0	8.500	0
Zerbitzu-emakidak	20	10	2.332.558	619.795
Obrak	155	90	22.038.472	23.121.207
Hornidura	87	48	7.204.099	2.831.831
Tokiko eremua, guztira	486	275	51.990.565	35.203.651
Nafarroako sektore publikoa, guztira	1.041	760	161.984.707	171.678.930

2016an, 1.041 kontratu adjudikatu ziren, guztira 161,98 milioi euro egiten zutenak. Tokiko sektoreko entitateek kontratu guztien ehuneko 47 izapidetu zuten; horiek 51,99 milioi euro egin zuten, guztizko zenbatekoaren ehuneko 32.

2017an, adjudikatutako kontratuen kopuruak 2016arekin alderatuta ehuneko 27 jaitsi ziren arren, 760 kontratu izateraino, haien adjudikazioa 171,68 milioikoa izan zen, aurreko urtekoa baino ehuneko sei handiagoa. Urte horretan, toki entitateek kontratuen ehuneko 36 adjudikatu zituzten, 35,20 milioiko zenbatekoarekin: guztizko zenbatekoaren ehuneko 21 da hori.

Foru Administrazioaren eremuan, 2016an eta 2017an, adjudikazio ohikoenak laguntza-kontratuenak dira, eta adjudikazio guztien ehuneko 53 dira. Haien adjudikazio-zenbatekoa guztizkoaren ehuneko 59 da.

Tokiko sektoreari dagokionez, 2016an eta 2017an laguntza kontratuak izan ziren ohikoenak, kontratu guztien ehuneko 46 izan baitziren; halere, adjudikazio-kopuru handiena, kasu horretan, obra kontratuena izan zen, ehuneko 52ra iritsi baitzen.

9.000 BIZTANLETIK GORAKO NAFARROAKO UDALETAKO ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA (2016-2017)

9.000 biztanletik gorako udalek egindako adjudikazioen datuak honako hauek izan ziren:

	Zenbat kontratu		Adjudikazioaren zenbatekoa	
	2016	2017	2016	2017
9.000 biztanletik gorako udalak				
Laguntza	52	42	2.193.785	1.343.434
Zerbitzu-emakidak	5	1	83.420	13.000
Obrak	22	22	1.662.559	4.871.848
Hornidura	21	12	668.829	221.681
9.000 biztanletik gorako udalak, guztira	100	77	4.608.593	6.449.963
Nafarroak tokiko eremua, guztira	486	275	51.990.565	35.203.651

Udal horietako kontratu ohikoenak laguntzakoak izan ziren, guztizkoaren ehuneko 53 izan baitziren; ondoren, obrenak eta hornidurenak datoz, ehuneko 25ekin eta 19rekin, hurrenez hurren. Adjudikatutako zenbateko aipagarrienak obra-kontratuenak eta laguntza-kontratuenak dira, guztien ehuneko 59rekin eta 32rekin, hurrenez hurren.

Datu horiek tokiko sektore osoari dagozkion datuekin alderatuz gero, ikusten dugu gure norainokoan sartutako udalek tokiko eremuko kontratu guztien ehuneko 21 eta 28 adjudikatu zituztela 2016an eta 2017an, hurrenez hurren; zenbatekoari dagokionez, adjudikazioak 2016ko eta 2017ko adjudikazio guztien ehuneko bederatzi eta ehuneko 18 izan ziren.

9.000 biztanletik gorako udal bakoitzak adjudikatutako zenbatekoaren eta kontratu-motaren xehetasunak txosten honen 1. eranskinean kontsulta daitezke.

Honako hauek dira 2016an eta 2017an aurreko kontratazioak aurrera eramateko erabili ziren prozedurak:

	Irekia	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	Kreditu-erreserba eta faktura	Negoziatua, Europar Batasunean publizitatea eginda	Guztira
Laguntza	76	13	5	0	94
Zerbitzu-emakidak	6	0	0	0	6
Obrak	26	16	2	0	44
Hornidura	18	13	1	1	33
Guztira	126	42	8	1	177

Udal horiek 2016an eta 2017an adjudikatutako kontratu guztien ehuneko 71 prozedura irekiaz adjudikatu zen, eta ehuneko 24, berriz, Europar Batasunean publizitaterik egin gabeko prozedura negoziatuaren bidez.

NAFARROAKO TOKIKO SEKTOREAK EGINDAKO KONTRATUEN AURKA AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOAK (2016-2017)

Nafarroako toki entitateek 2016an egindako kontratazio-prozesuei aurkeztutako erreklamazioak 38 izan ziren, 2017an, berriz, 33. Ondoren, erreklamazio horiek direla-eta Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak hartutako erabakiaren xehetasunak ematen ditugu:

Aurkeztutako erreklamazioa dela eta, zein erabaki hartu den	2016	2017
Baiestea	12	10
Ezestea	10	9
Ez onartzea	11	6
Ezestearen ondoriozko artxibatzea	1	4
Baieste partziala	4	4
Erreklamazioak, guztira	38	33

2016an eta 2017an aurkeztutako erreklamazioen ehuneko 31 baietsi ziren eta ehuneko 27 ezetsi ziren; erreklamazioen ehuneko 24 ez ziren onartu, ehuneko 11 partzialki baietsi ziren eta gainerako ehuneko zazpia ezestearen ondorioz artxibatu ziren. Portzentaje horiek urte bakoitza aztertuta lortuko genituzkeen ia berdinak dira.

Aurreko erreklamazioetatik, bederatzi 9.000 biztanletik gorako udalei dagozkie, honako xehetasun hauen arabera:

Aurkeztutako erreklamazioa dela eta, zein erabaki hartu den	2016	2017
Baiestea	3	0
Ezestea	0	1
Ez onartzea	2	0
Ezestearen ondoriozko artxibatzea	1	2
Erreklamazioak, guztira	6	3

Baietsitako erreklamazioak Zizur Nagusiko, Eguesko eta Lizarrako udalek egindako kontratuei dagozkie; ezestearen ondorioz artxibatutakoak udal horien beraien kontratuei dagozkie; onartu ez direnak Lizarrako eta Eguesko udalek izapidetutako kontratuei dagozkie, eta, azkenik, ezetsitakoa, Barañaingo Udalarari.

Aurreko datuak kontuan hartu eta urte bakoitzean adjudikatutako kontratuen kopuruarekin lotuz gero, honako ondorio hauek atera ahalko ditugu¹:

	Nafarroako tokiko sektorea		9.000 biztanletik gorako udalak	
	2016	2017	2016	2017
Egindako kontratuak	486	275	100	77
Aurkeztutako erreklamazioen kopurua	38	33	6	3
Baietsitako erreklamazioen kopurua (guztira, partzialki)	16	14	3	0
Egindako kontratuek zenbat egiten duten erreklamazioak aurkeztu zitzaizkien kontratuetan (%)	8	12	6	4
Egindako kontratuek zenbat egiten duten erreklamazioak aurkeztu zitzaizkien eta erreklamazio horiek baietsi ziren kontratuetan (%)	3	5	3	-

¹ Kontuan hartu beharra dago 2016an aurkeztutako erreklamazioetatik batzuk 2015ean izapidetutako kontratuei buruzkoak izan daitezkeela, eta 2018an, berriz, 2017an egindako kontratuei buruzko erreklamazioak egon daitezkeela; halere, kontratuak egin diren datak direla eta, gure ondorioak ez dira asko aldatu.

2016an eta 2017an, Nafarroako tokiko sektoreko kontratazioen ehuneko zortzian eta 12an aurkeztu ziren erreklamazioak; aztertzen ari garen udalen kasuan portzentaje horiek ehuneko sei eta lau dira baizik ez dira.

Guztira aurkeztutako erreklamazio horietatik, tokiko sektoreak egindako kontratuen ehuneko lauari dagozkionak baietsi ziren; 9.000 biztanletik gorako udalen kasuan, portzentaje hori ehuneko bikoia da.

III.2. KONTRATU-LAGIN BATEN AZTERKETA.

Berrikusitako kontratu-lagina txosten honen 1. eta 2. eranskinetan zehazten dena da. Zehazki, honako alderdi hauek fiskalizatu ditugu: kontratuaren adjudikazio-espeditentea; adjudikatu zenetik gastuak izan duen exekuzioa; kontratuaren aldaketak, halakorik izan bada, eta kontratu horiek arautzen dituzten pleguak betetzearen gaineko kontrola.

Egindako azterketatik ondoriozta dezakegu ezen, oro har, kontratazio-espeditentek aplikatzen diren araudiaren arabera izapidetu direla; gastuak justifikatuta daudela eta zuzen baimendu, esku-hartu eta kontabilizatu direla; eta pleguen gaineko kontrola egokia izan dela. Hala eta guztiz ere, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

BERRIKUSPENEAN DETEKTATU DIREN SALBUESPENAK

- Oro har, kontratu baten izapidetze-espeditentearen hasieran egin behar den beharrezko buruzko txostenen edukia ez da nahikoa, eta batzuetan jaso ere ez da egin.
- Zizur Nagusiko udal eraikin baten erreformaren adjudikazioari dagokionez —207.529 euro dira guztira—, detektatu dugu akats batzuk badaudela puntuazioa esleitzerakoan; akats horiek berekin ekarriko lukete adjudikazio-hartzailea beste lizitatzailerik bat izatea.
- Eguesko argiteria publikoaren berritzea adjudikatzeko prozesuan, nahiz eta lizitatzailerik bat baztertua izan zen dokumentazioa epe kanpo aurkezteagatik, haren balorazio tekniko osatu egin zen, eta haren eskaintza ekonomikoa ireki eta lizitatzailerik lehentasun-zerrendan ere jaso zen.
- Tafallako bi kontraturen eta Lizarrako kontratu baten pleguek hobekuntzak eskaintzeko aukera jasotzen zuten, eta adjudikazio-hartzaile suertatu zirenek hala egin zuten; ez dago jasota hobekuntza horiek benetan egin izana egiaztatzen izanaren justifikaziorik.

DETEKTATUTAKO BESTELAKO ALDERDIAK

Ganbera honek aipatu nahi ditu, gainera, gure lana egitean detektatu ditugun honako gai hauek, zeinek garrantzi txikiagoa baitute aurrez deskribatu ditugun salbuespenek baino:

- Lizarrako Udalaren aztertu dugun hornidura-kontratu batean, ezinezkoa zen preskripzio teknikoaren pleguetan exijitutako baldintzak betetzea; hori dela eta, prozedura eman gabe deklaratu zen.
- Berriozarko, Aranguren Ibarreko eta Eguesko udalek adjudikatutako bost kontraturen espeditentearen dokumentazioaren zati batean, egiaztatutako akatsak daudela datetan, kontratazio-prozeduretan edo/eta adjudikazio-irizpideetan, zeinak egiazki erabilitakoez bestelakoak baitira; halere, diferentzia horiek ez dute garrantzirik izan egindako adjudikazioan.
- Antsoaingo antzinako osasun etxea egokitzeko obrak egiteko, aurrekontu-aldaketa bat egin zen kreditu berezi baten bitartez. Ez dago jasota justifikatu zenik gastu hori ezin zela ondorengo ekitaldietara geroratu, araudiak hori ezartzen duen arren.
- Aranguren Ibarreko Udalaren kontratu batean eta Eguesko Udalaren beste batean, irizpide teknikoaren puntuazioa ematerakoan, baloratutako azpi-irizpideen xehetasunik edo behar adinako xehakaterik ez dago, ez eta apartatu bakoitzean esleitzekoak diren puntuen zehaztapenik ere.
- Oro har, Eguesko eta Atarrabiako udalen kontratuetan, ez dago jasota lizitatzailerik adjudikazioaren komunikazioa edo/eta hartu izanaren agiria.
- Kontratuen Erregistroan ez daude jasota Atarrabiako Udalak egindako kontratuak.

- Eguesko Udalaren kontratu batean, Tafallako Udalaren kontratu batean eta Zizur Nagusiko Udalaren beste batean, hornidura edo obra jaso izanaren aktarik ez dago. Lizarran, ez dago jasota adjudikazio-hartzaileak hornidura jakin bat entregatu ondoren harrera-akta sinatu zenik.

- Lizarrako eta Tafallako udalek hiru faktura eta faktura bat ordaindu zituzten, hurrenez hurren, hiru kontraturik zegozkionak, araudian ezarritakoaz gorako epean.

- Lizarran dauden ibilbide desberdinen seinaleztapen turistikoaren adjudikazioa arautzen zuten pleguetan, adjudikazio-hartzaileari exigitzen zitzaion zenbait lan azpikontrata zitzala irabazi asmorik gabeko enplegu zentro bereziekin, gizarteratu eta laneratzeko zentroekin edo enplegu babestuko programei atxikitako enpresekin; espedientean ez dago jasota lan horiek aipatutakoen moduko erakunderen batek egin izana; halere, Udalak jada erreklamatu du baldintza hori bete dadila, zeren eta kontratua indarrean baitago.

- Zizur Nagusiko Udalaren erregai-horniduraren adjudikazio-hartzaileak, beste enpresa batzuekin bat egin ondoren, kontratua enpresa xurgatzaileari laga zion, baina toki enteak ez zituen ez haren kaudimena, ez eta kontratatzeke gaitasuna ere egiaztatu.

- Eguesen kiroldegi bat egiteko proiektua arautzen zuen pleguaren arabera, 1,8 milioiko gehieneko kostua ezarria zegoen azpiegitura horretarako; hala eta guztiz ere, proiektuak 3,7 milioi euroko gastua aurreikusten du. Bestetik, nabarmendu behar dugu proiektu hori egiteko epean atzerapen nabarmena izan dela; hasieran, epea bi hilabetekoa zen, eta lizitazioa 2015eko martxoan argitaratu ondoren, 2016ko martxoan adjudikatu zen; proiektua 2017ko urtarrilean aurkeztu zen, baina hartan aldatetak egin ziren. Hori dela eta, fakturak ez ziren 2017ko abendura arte aurkeztu. Aurrekoaz gainera, proiektuak Udalaren jabetzakoa den lurzatiaren mugak gainditzen dituen teilatua dauka, eta horrek berekin ekarriko du proiektua berriz ere aldatu behar izatea.

- Tafallako Udaleko zezen-ikuskizunen antolaketa-zerbitzuen emakidarako kontratuan, ez dago adjudikazio-hartzaileak jardueraren garapenari buruz egindako amaierako txostenik, nahiz eta kontratua arautzen zuten pleguetan hori ezarrita egon.

III.3. INDARRALDIA AMAITUTA DUTEN KONTRATUEN AZTERKETA

Udal bakoitzerako aztertu ditugu 2017ko abenduaren 31n ematen jarraitzen ziren zerbitzuak, nahiz eta haiei zegozkien kontratuen indarraldia amaituta egon.

Azterketa hori egiteko, lan honen norainokoan sartuta dauden udalek eman diguten informazioaz baliatu gara.

Lortutako emaitzak honako taula honetan islatzen ditugunak dira:

Udala	Kontratuaren indarraldia amaituta zuten zerbitzuen kopurua	Kontratuaren indarraldiaren amaieratik 2017-12-31ra arte izandako gastua	Kontratuaren indarraldiaren amaieratik iragan diren egunak, batez beste
Antsoain	0	0	0
Barañain	2	74.080 ^(a)	^{a)}
Berriozar	1	6.148	123
Burlata	10	192.163 ^(a)	^{a)}
Egues	1	62.634	152
Lizarra	8	1.960.619 ^(b)	2.746
Tafalla	7	2.044.111 ^(b)	2.041
Aranguren Ibarra	1	21.236	258
Atarrabia	2	100.000 ^(c)	^(c)
Zizur Nagusia	1	1.615.700	731

(a) Ez digute eman kontratu horien indarraldiaren amaiera-data; 2017ko gastua baizik ez da ematen.

(b) Aipatzen den gastua zenbatespen bat da, adjudikatutako urteko gastutik abiatuta egindakoa.

(c) Ez digute eman kontratu horien indarraldiaren amaiera-data; kontratuetakoa baten 2017ko gastua baizik ez dugu aipatzen.

Aurreko taulako datuak aztertuta, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- Oro har, kontratuen indarraldia amaituta egon arren udalek jasotzen zuten zerbitzu-kopurua hirukoa zen, batez beste; egoera horretan zerbitzu gehien zituzten udalak Burlatakoa (hamar kasu), Lizarrakoa eta Tafallakoa ziren (zortzi eta zazpi kasu, hurrenez hurren). Horri buruz, aipatu behar dugu azken bi udal horietako kontu-hartzaitzako langileek urtero eragozpen-txosten bat egiten dutela, zeinean kontratuak amaituta dituzten zerbitzuak deskribatzen baitituzte.
- Kontratuaren indarraldia amaituta egon arren jasotako prestazio horiek prozedura arruntaren bidez ordaintzen dira, ez dago jasota inongo berariazko espedienterik egin denik haiek ordaintzeko.
- Nabarmenezkoa da Lizarrako eta Tafallako kasuetan kontratuak amaitu zirenetik batez beste iragan den epea, 7,5 urtekoa eta 5,59 urtekoa, hurrenez hurren.
- Honako hauek izan ziren udal bakoitzean zerbitzua ematen jarraitzeko izandako arrazoiak, nahiz eta kontratuaren indarraldia amaituta egon:

Udala	Arrazoiak
Barañain	Zerbitzuarekin ados egotea
Berriozar	Espedientea prestatzeko denborarik ez izatea
Burlata	Zazpi kasutan, pleguak egiten ari dira; kasu batean, aztertzen ari da ea zerbitzua Udalak bere bitartekoekin ematen duen; beste kasu batean, Udalak zerbitzua bere bitartekoekin emateko prozesuan dago, eta beste batean, tresna izaerako ente bati enkargua egiteko aukera aztertzen ari da.
Egues	Zerbitzua nola eman aztertzen ari da: kanpoan edo tresna izaerako ente bati enkargua eginez.
Lizarra	Hiru kasutan: zer egin aztertzen ari da politikoki; bi kasutan: Udala ados dago zerbitzuarekin; kasu batean: bi aldiz lizitatu da eta eman gabe deklaratu da prozedura; bi kasutan: denborarik ez dago, espedienteak jada hasita daude.
Tafalla	Hiru kasutan: Udala politikoki baloratzen ari da zerbitzua kanpoan kontratatu ala ez; bi kasutan: espedienteari hasiera emateko agindua falta da; kasu batean: geroratu da aztertzea zerbitzua beste kontratu batzuenarekin bateratzen den; kasu batean: prozedura dela-eta desadostasunak daude.
Aranguren Ibarra	Zerbitzua emateko teknologia aldatu da.
Atarrabia	Gaur arte bi kasuak inoiz lizitatu gabekoak ziren (argindarraren eta gasaren hornidura).
Zizur Nagusia	Kontratazio prozedura behar zen unean hasi zen, baina adjudikazioaren aurkako errekurtsua aurkeztu zen, eta gaur egun berriz ere adjudikatzeko prozesuan dago.

Kontratu amaituta duten prestazioak ordaindu behar izateko arrazoiak askotarikoak dira: nabarmenezkoak dira lotuta daudenak zerbitzu bat Udalak berak ematea ala ez aztertzearekin; izan ere, halakoetan gertatzen da egoera denboran luzatzen dela, bereziki Lizarrako eta Tafallako kasuetan.

III.4. GOMENDIOAK

Azken batean, Ganbera honen ustez, oro har, 9.000 biztanletik gorako udalen administrazio-kontratazioa, 2016. eta 2017. urteetako, ezarritako araudiaren arabera egin zen; halere, ondoren eremu horren kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak emanen ditugu:

- *Beharizanei buruzko txosten bat egitea, kontratatu nahi den prestazioa justifikatuko duena.*
- *Kontratuen gehieneko indarraldia, 6/2006 Foru Legean ezarritakoa, errespetatzea, eta kontratuen plangintza egokia egitea, egungo arau-esparruan aurreikusita ez dauden luzapenak saihesteko.*
- *Kontratu-euskarririk gabeko betebeharrak hartu beharreko kasuetan, betearazpenaren oinarrietan izapidetzerako prozedura egokia ezartzea, aberaste bidegabearen teoriaren arabera, organo eskudunak onetsi dezan.*

- *Kontratazio-espeditente batean egon beharreko dokumentazio guztia egoki formalizatu eta osatzea, eta aplikatzekoa den araudiaren arabeko izapide guztiak betetzea.*
- *Merkatuari buruzko alde zurretiko kontsultak egitea prestazio konplexuetarako kontratuak prestatzerakoan.*
- *Pleguetan, lizitatuzaileen eskaintzak baloratzeko erabiliko diren azpi-irizpideak eta puntuazioak zehaztea.*
- *Pleguetan, kontratuaren arduradunak beharrezkotzat jotzen dituen eta kontrolatu ahal dituen klausulak ezartzea.*
- *Aurrekontu-aldaketak egiteko araudian jasotako baldintza guztiak betetzea.*
- *Balizko lizitatuzaileei egindako puntuazio-esleipenak goitik behera aztertzea.*
- *Egindako kontratuei buruzko informazioa Kontratuen Erregistroari bidaltzea.*
- *Betetze-fasean dauden izaera sozialeko beharkizunak betetzen direla egiaztatzea, eta ez-betetzeen kasuak ebatzi eta zigortzea.*
- *Kontratuen fakturak araudian ezarritako epean ordaintzea.*
- *Egiaztatzea eta dokumentatzea bete egiten direla adjudikazio-hartzaileak lizitazioan eskaini zituen hobekuntzak.*
- *Egiaztatzea ea kontratu baten emakida hartzen duen erakundeak araudian ezarritako baldintzak betetzen dituen, eta hori jasota uztea.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2018ko apirilaren 16an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

1. ERANSKINA UDAL BAKOITZAK ADJUDIKATUTAKO KONTRATUEN ETA HAUTATUTAKO KONTRATUEN LAGINAREN XEHETASUN OROKORRAK

	Laguntza		Zerbitzu-emakidak		Obrak		Hornidura		Lagina, guztira	
	Kontratu kopurua	Adjudikazioaren zenbatekoa	Kontratu kopurua	Adjudikazioaren zenbatekoa	Kontratu kopurua	Adjudikazioaren zenbatekoa	Kontratu kopurua	Adjudikazioaren zenbatekoa	Kontratu kopurua	Adjudikazioaren zenbatekoa
Antsoain: kontratuak, guztira	4	145.972	1	1.100	1	78.854	0	0	6	225.925
Hautatutako lagina	2	124.721	0	0	1	78.854	0	0	3	203.575
Barañain: kontratuak, guztira	8	436.776	1	15.120	3	545.528	0	0	12	997.424
Hautatutako lagina	1	120.232	1	15.120	1	183.990	0	0	3	319.342
Berriozar: kontratuak, guztira	4	123.220	0	0	1	84.848	2	59.227	7	267.197
Hautatutako lagina	1	63.968	0	0	1	84.848	0	0	2	148.816
Burlata: kontratuak, guztira	10	295.752	1	13.000	4	373.113	5	248.488	20	930.353
Hautatutako lagina	2	84.000	0	0	1	60.746	1	118.900	4	263.646
Egues: kontratuak, guztira	20	348.074	0	0	15	1.801.178	8	178.580	43	2.328.832
Hautatutako lagina	3	139.395	0	0	2	1.437.151	2	55.400	8	1.632.946
Lizarra: kontratuak, guztira	12	217.956	0	0	6	741.934	6	157.789	24	1.117.678
Hautatutako lagina	2	32.969	0	0	1	216.112	3	80.925	6	330.006
Tafalla: kontratuak, guztira	5	247.491	1	60.400	2	110.092	3	60.447	11	478.430
Hautatutako lagina	0	0	1	60.400	1	72.107	1	7.490	3	139.997
Aranguren Ibarra: kontratuak, guztira	4	459.117	0	0	1	1.421.897	0	0	5	1.881.014
Hautatutako lagina	1	310.000	0	0	1	1.421.897	0	0	2	1.731.897
Atarrabia: kontratuak, guztira	12	191.122	2	6.800	8	1.083.338	6	133.424	28	1.414.683
Hautatutako lagina	2	19.330	0	0	2	570.610	1	59.197	5	649.137
Zizur Nagusia: kontratuak, guztira	15	1.073.054	0	0	3	293.625	3	49.659	21	1.416.338
Hautatutako lagina	3	680.787	0	0	1	207.529	1	27.000	5	915.316
Kontratazioak, guztira	94	3.537.218	6	96.420	44	6.534.407	33	890.510	177	11.0585.556
Lagineko kontratazioak, guztira	17	1.575.403	2	75.520	12	4.333.844	9	348.912	40	6.333.679
Laginak guztizkoan zenbat egiten duen (%)	18	45	33	78	27	66	27	39	23	57

2. ERANSKINA UDAL BAKOITZETIK AZTERTUTAKO LAGINEKO KONTRATUEI BURUZKO XEHETASUNAK

Udala	Urtea	Kontratuaren xedea	Kontratu-mota	Prozedura	Adjudikazio-irizpidea	Lizitazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren zenbatekoa	Parte-hartzaileen kopurua
Antsoain	2016	"Harrobi" gazteriaren etxea kudeatzeko laguntza-kontratua	Laguntza	Irekia	Eskaintzarik onena	236.364	117.538	1
	2016	Antzinako osasun etxea egokitzea gizarantz-esparru komunitario gisa	Obrak	Publizitaterik gabe negoziatua	Preziorik merkeena	81.607	78.854	3
	2017	Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko programa	Laguntza	Irekia	Eskaintzarik onena	7.183	7.183	1
Barañain	2016	Erretirodunen klubeko bi lokaletako tabernako arretoa eta garbitasuna	Zerbitzu-emakidak	Irekia	Eskaintzarik onena	21.600	15.120	1
	2016	Lagunak Udal Sozietateko erretregien esparrua birmoldatzea	Obrak	Publizitaterik gabe negoziatua	Eskaintzarik onena	188.430	183.990	1
	2017	Haurrentzako, helduentzako eta hirugarren adinekoentzako kirol jarduerak garatu eta irakastea kirol eskoletan	Laguntza	Irekia	Eskaintzarik onena	130.576	120.232	2
Berriozar	2016	Udalaren aseguru-polizak, loteka	Laguntza	Irekia	Eskaintzarik onena	67.000	63.968	3
	2017	Mendiak ikastetxe publikoko beheko solairuko komunak birmoldatzea eta haurrentzako eremuko patioa eta sarrera partzialki egokitzea	Obrak	Publizitaterik gabe negoziatua	Eskaintzarik onena	84.932	84.848	2
	2016	Kultur aniztasunari buruzko azterlan bat eta ekintza plan bat egitea, Burlatako herritarren bizikidetasuna eta parte-hartzea sustatzeko	Laguntza	Publizitaterik gabe negoziatua	Eskaintzarik onena	24.793	24.000	4
Burlata	2016	Tributu-helburuak aztertzekeo planerako laguntza administratiboa	Laguntza	Publizitaterik gabe negoziatua	Eskaintzarik onena	60.000	60.000	3
	2016	Kale-garbigailu xurgatzaile autopropultsua	Hornidura	Irekia	Eskaintzarik onena	123.967	118.900	7
	2017	Erripagañako Karrovide erreka parkean haur jolasen eremua diseinatu, hornitu, instalatu eta egitea	Obrak	Publizitaterik gabe negoziatua	Eskaintzarik onena	60.746	60.746	12

4	Urtea	Kontratuaren xedea	Kontratu-mota	Prozedura	Adjudikazio-irizpidea	Lizitazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren zenbatekoa	Partehartzaileen kopurua
Udala	2016	Salestarren udalez gaindiko plan sektoria-laren birzaitze-eremu E.1 lurzatian kirolegia egiteko proiektu teknikoa	Laguntza	Irekia	Eskaintzarik onena	144.000	100.800	12
	2016	Egues Ibarreko euskaldunen fitategi bat egitea	Laguntza	Irekia	Eskaintzarik onena	25.000	18.181	2
	2016	Sarrigureno Ikastetxe Publikoko kanpoko patioa arkupea ixtea	Obrak	Publizitaterik gabe negoziatua	Preziorik merkeena	26.071	23.922	3
	2016	Irakurketarako, ikus-entzunezko eta multimedia erako materiala Sarrigureno liburutegirako	Hornidura	Irekia	Eskaintzarik onena	30.579	30.579	1
	2016	Udaltzaingoa zerbizurako ibilgailua	Hornidura	Irekia	Eskaintzarik onena	25.200	24.821	1
	2017	Egulbatik kanpalekua egitea genero-berdintasuneko irizpideekin	Laguntza	Irekia	Eskaintzarik onena	25.200	20.414	3
	2017	Kanpoko argiteria publikoa berritzeko obrak	Obrak	Irekia	Eskaintzarik onena	1.434.750	1.413.229	4
	2016	Lizarrako ondare ez-materialaren artxiboa	Laguntza	Publizitaterik gabe negoziatua	Eskaintzarik onena	16.440	16.440	1
	2016	San Benito komentuko barnealdea zahar-berritzeko obren IV. fasea (ingurua urbanizatzea)	Obrak	Irekia	Eskaintzarik onena	269.972	216.112	3
	2016	Los Lianos kultur etxeko soinu-sistema hornitu, instalatu eta funtzionamenduan jartzea	Hornidura	Publizitaterik gabe negoziatua	Eskaintzarik onena	13.416	13.148	1
Lizarra	2016	Los Lianos kultur etxeko soinu-sistema hornitu, instalatu eta funtzionamenduan jartzea	Hornidura	Irekia	Eskaintzarik onena	10.000	9.950	6
	2017	Lizarrako ondare ez-materialaren artxiboa	Laguntza	Publizitaterik gabe negoziatua	Eskaintzarik onena	16.529	16.529	1
	2017	Lizarrako seinaleztapen turistikorako informazio-mugarrak hornitzeko eta kokatze horritzaileak hautatzeko esparru-akordioa	Hornidura	Irekia	Eskaintzarik onena	81.360	57.827	2

Udala	Urtea	Kontratuaren xedea	Kontratu-mota	Prozedura	Adjudikazio-irizpidea	Lizitazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren zenbatekoa	Parte-hartzaileen kopurua
Tafalla	2016	Tafallako 2016ko eta 2017ko jaietan zeren-ikuskitzuna antolatzea eta egitea	Zerbitzu-emakidak	Irekia	Eskaintzarik onena	60.400	60.400	3
	2016	Zezen plazako palkoen estaldura zahar-berritzea	Obrak	Publizitate gabe negoziatua	Eskaintzarik onena	75.112	72.107	3
Aranguren Ibarra	2016	Kanpoko ikuskizumetarako soinu-ekipamenduen hornidura	Hornidura	Irekia	Eskaintzarik onena	9.500	7.490	5
	2016	Udalaren kirodegiko garbiketarako, sarre-aren kontrolerako eta atezaintzako zerbitzua	Laguntza	Irekia	Eskaintzarik onena	332.000	310.000	4
	2017	Mutiloako kontsultategi medikoa erreformatu eta zabaltzea	Obrak	Irekia	Eskaintzarik onena	1.480.942	1.421.897	6
	2016	Argiteria publiko berritzea	Obrak	Irekia	Eskaintzarik onena	619.275	544.962	6
Atarrabia	2016	Atarrabiako haur parkeen hornidura, birmoldatzea eta instalazioa	Hornidura	Publizitate gabe negoziatua	Eskaintzarik onena	64.640	59.197	5
	2017	Udalaren aholkularitza juridikoa	Laguntza	Irekia	Eskaintzarik onena	5.969	5.785	4
	2017	Kale-garbiketaren zerbitzua areagoitzea	Laguntza	Lizitazio-iragarkirik gabe	Ez dago eskuragarri	15.000	13.545	2
	2017	Esteban Armendariz zeharkaleko 2. ea 3. kaleei zoladura emateko obra	Obrak	Lizitazio-iragarkirik gabe	Ez dago eskuragarri	27.170	25.648	3
Zizur Nagusia	2016	Zizur Nagusiko hiri-garbiketa	Laguntza	Irekia	Eskaintzarik onena	342.500	295.486	1
	2016	Zizur Nagusiko Udalaren kirol jarduerak, lotetan banaturik	Laguntza	Irekia	Eskaintzarik onena	63.793	58.643	2
	2016	A eta C gasolioaren hornidura udal egoitzetarako	Hornidura	Irekia	Eskaintzarik onena	27.000	27.000	3
	2017	Zizur Nagusiko "Paquita Ansa Haur Eskola" Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko Ikastetxearen kudeaketa-zerbitzua	Laguntza	Irekia	Eskaintzarik onena	326.658	326.658	1
	2017	Zizur Nagusiko Ramón Esparza Plazako udal eraikina erreformatzea	Obrak	Irekia	Eskaintzarik onena	221.956	207.529	5

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Egues Ibarreko alkate Alfonso Etxeberria Goñi jauna Nafarroako Kontuen Ganberaren aurrean agertu eta HONAKO HAU AZALTZEN DU:

Idazki honen bidez alegazioak aurkezten dizkiola 9.000 biztanletik gorako udaletako administrazio-kontratazioari buruzko behin-behineko txostenari, ondoren azaldutako moduan:

Lehena. Orokorra.- Bidezkoa iruditzen zaigu lehenbizi aipatzea langileen nolako gabezia pairatzen ari den Egues Ibarreko Udala, eta administrazio batzuketan beren plantillen dimentsioa egoki ezartzerakoan izaten ari diren zailtasunak. Hau ez da inguruabar horren arrazoiak aztertzeke unea, baina denok dakigu aplikatzeko den estatuaren egungo arau-esparruak hain zuzen ere horrelako egoerak dakartzala.

Halaber, aipatu beharra daukagu ezen gorago azaldutakoaren berehalako ondorioa dela egungo langileek ahal bezala berezia egin behar izaten dutela espedienteak zorrotasun administratibo handienaz eta indarreko legedia betez. Kontuan hartu beharra dago ezen Udalaren departamentu administratiboak izapidetu behar izan dituen kontratazio-espediente formalizatuak hogeita bost izan direla 2017. urtean.

Bigarrena.- Argiteria publikoak berritzeko obra-kontratuaren espedienteak.- Txostenean aipatzen da lizitazioa aurkeztu zen enpresa baten proposamen teknikoak eta eskaintza ekonomikoa baloratu egin zirela, naiz eta enpresa hori prozeduratik kanpo utzia zen.

Baldintzen pleguak aukera ematen zuen dokumentuen errekerimendua egin zitezen lizitazioak behin-behineko onartzeko. Horixe da epean eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik kanpo utzitako proposamen baten balorazio teknikoak egin izanaren arrazoiak. Inguruabar hori errekerimendua betetzeko izapidea egin ondoren egiaztatzen da.

Eskaintza ekonomikoa irekitzeko dagokionez, iruditzen zaigu zuzena dela jasota uztea akats material soil bat izan zela; akats horrek, izan ere, inongo garrantzirik ez zuen izan lizitazioaren emaitza, eta eragin negatiborik ere ez zuen izan ez espedientearen, ez kontratuaren beste inongo alderditan.

Hirugarrena.- Puntuazioa adjudikazio-irizpideen arabera ematea.- Behin-behineko txostenaren 9. orrialdean, irizpideen aplikazio oker bat aipatzen da, bai eta azpi-irizpideen ustezko zehaztapen falta bat ere.

Alegaziorik ezin dugu egin inguruabar horiek direla eta, zeren eta ez baititugu kontratuak ezagutzen. Gai honen zehaztapen-eza dela eta, ezin ditugu alderdi batzuketan baloratu: azpi-irizpideak behar diren ala ez, edo balorazio-elementu horiek kasuko txostenetan adierazi behar diren ala ez.

Laugarrena.- Adjudikazioen komunikazioak.- Guztiz desegokia eta, batez ere, errealitateaz kanpokoa iruditzen zaigu oro har egindako baieztapen bat, alegia, ez dagoela jasota lizitazioaren komunikazioaren eta kasuko hartu izanaren agirien egiaztagiririk (10. orrialdea).

Baieztapen horretatik halako uste oker bat ondoriozta daiteke, alegia, udal honetan ez direla adjudikazioak jakinarazten; izan ere, egiazki, espedienteetan ikus daiteke jakinarazpenak berehala igortzen zaizkiela lizitazioetan parte hartzen duten guztiei, adjudikazio-hartzaileak izan zein ez izan.

Aurrekoa gorabehera, litekeena da jakinarazpenetan akatsen bat edo dokumentu bidez ez jasotzeren bat gertatu ahal izan da kasu zehatzen batean. Halere, inguruabar hori Udaleko langileen gizaki izazterari egoztekota izan da, gizaki oro okertzen baita. Halere, aparteko kasuetan baizik ez dira gertatu halakoak.

Bosgarrena.- Kiroldegiaren proiektua.- Kontratu horri buruz, honako hau aipa daiteke:

Izapidetzean izan diren atzerapenen arrazoiak da gobernu-taldeak ezin izan duela gogoeta bat egin etorkizun nahiko hurbil baterako proiektatuta zeuden inbertsioen programazio egokiari buruz. Kiroldegiaz gainera, kultur etxea, haur hezkuntzako ikastetxea eta muntako beste inbertsio batzuketan bazeuden. Hori dela eta, programazio hori berraztertzen zen eta instalazioen definizio xehakaturik mantsotu zen.

Bestetik, kontuan hartu beharra dago proiektu-egileak izandako akatsa, eraikinaren lerrotzeko dagokiena, zuzendu egin dela, eta lerrotzeko horiek hirigintza-araudi indardunari egokitu zaizkiola.

Instalazioek azkenean izan duten kostuari dagokionez, 3.448.999.90 eurokoa da, eta ez proiektuaren lehenengo idazketan aipatutakoa, 3,7 milioi hain zuzen.

Aurreko guztia dela eta,

KONTUEN GANBARARI ESKATZEN DIOT: Azaldutako alegazioak egintzat har ditzan.

Egues Ibarreko Sarrigurenen, 2018ko apirilaren 13an.

Alkatea: Alfonso Etxeberria

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN-
DAKO ERANTZUNA**

Eskerrak ematen dizkiogu Egues Ibarreko Udaleko alkateari aurkeztu dizkigun alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen. Halere, honako alderdi hauek aipatu nahi ditugu:

- Alegazioen 3. puntuari dagokionez, esan behar dugu aipagai dugun kontratua, Udaleko teknikariek jada ezagutzen zuten bezala, "Egulbatik kanpalekua egitea genero-berdintasuneko irizpideekin" izena daramana dela. Ondorioetan esandakoa berretsi beharrean gaude kontratazioari buruzko txostenetan baloraziorako erabiltzen diren azpi-irizpideak jasota uzteko beharrari dagokionez.
- 4. puntuari dagokionez, Ganbera honek adierazi izan du ez dela jasota geratu adjudikazioen jakinarazpena lizitazioetan parte hartutako guztiei egin izana. Horrek ez du esan nahi Udalak izapide hori egiten ez duenik, baizik eta hura beti jasota utzi ez duenez, ezin izan dugula egiaztatu benetan egin den.

Iruñean, 2018ko apirilaren 16an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

